

EUSKARAREN DIDAKTIKA, 2019-2010. 5. Gaiko ariketa

Izen abizenak: **BEÑAT MUJIKA IZAGUIRRE, IRUNE ERRASTI RUIZ eta NAHIA GALVAN FERNANDEZ**

1.ABENDUAK 2rako ariketa: BI ARGUDIOZKO TESTUEN AZTERKETA

BI GAIEN INGURUAN BI IKASLEK ADIN BERTSUAN IDATZITAKO BI TESTU DITUZU ONDOREN. AZTER ITZAZU BANAN BANA ETA DISEINATU SEKUENTZIA DIDAKTIKO BATEN HEZURDURA.

1. TESTUA: Ikastetxe batean ikasleei ordutegi aldaketa proposatu zaie. Ikus ikasle batek zuzendaritzari helarazi dion iritzi gutuna . Azter ezazu testuen arkitekturaren hiru mailatako bakoitzaren arabera:

Nik nahiago nuke Ertaineko klase hauek goiz eta arratsalde egiten baziren, sei ordu jarraian ikastolan egoteak asko aspertzen bait du, eta nahiz eta egun batzuk honela iragan, azkenean limite batetara iristen zara, ezin duzula gehiago egin konturatu zarenean, egia esan estresaturik askok bukatzen bait dute modu honetan. Baina goiz eta arratsalde egiten bazen, gure kasuan Andoaindik kampo bizi direnak arazo handiak edukiko zituzten. Nere kasuan adibidez San Pedroko bat dago eta honek iha ezinezkoa izango luke joan eta etorria ordu pare batean egitea, bazkaltzea ere kontutan hartzen badugu. Nire kasuan behintzat, azken bi orduak guztiz nekaturik bukatzen ditut, eta ez dut lehenengoetan bezala lan egiten. Orain adibidez hamabiak eta hogeita hiru dira, eta guztiz asperturik egonez aparte, izugarrizko gosea dut, eta nahiago izango nuke hiruretatik bostetara jarraitzea. Baina ni ez nago ez baten alde eta ez bestearena, bakoitzak bere alde onak eta txarrak bait ditu, eta ez zait ajola alde batera egin edo bestetara egitea. Jendeak arratsaldetan dute partikularrak, entrenamenduak eta eginbeharrak ere kontutan hartu behar dira, eta honen ondorioz ezinda esan zein den hobeagoa, hau bakoitzaren arabera bait da.

1.1. Testu generoa kontuan hartuz azter ezazu nola bideratzen duen egileak testuaren egitura-planifikazioa? Zein elementuz baliatzen da? Arazorik?

Lehen testu hau bi ataletan soilik banatzen da, bi atal horiek testuan zehar tartekatzen direlarik; batetik, (igorlearen) iritzia; eta bestetik, argudioak. Argudioena da testuan eremu zabalena hartzen duen zatia.

Beraz, egituraketa honakoa da. Lehen paragrafoan, iritzi propioa ematen du, bere ahotsa presente eginaz , eta iritzi hori emateko lehenik argudio bat (1) ematen du (“aspertzen bait du”), eta ondoren hori indartu egiten du, aurrenik kontraargudio ahul bat emanik (1’) (“nahiz egun batzuk honela iragan”) eta gero nekea eta estresaren argudioak gaineratuz.(2 & 3) Ondoren beste kontraargudio indartsu bat ematen du, baina hasierako bere posizionamenduaren aurka, kanpotik datozenentzako zailtasuna aipatuz (2’). Jarraian, beste kontraargumentu gisa berak pertsonalki bizitzen duen nekea erakusten du (3’), idazketa momentuan bertan sentitzen duena kontraargudio horren indargarri gisa erabili. Hortaz, lehen paragrafo honetan, lehen iritzi bat eta argudio batzuk ematen ditu horren mesedetan, baina segidan bere iritzi horren aurkako argudioei ematen die leku. Kontraargudio horiek ez ditu bere iritziaren alde erabiltzen ordea.

Hurrengo paragrafoan, bigarren iritzi bat ematen du, iritzi-ez batetik gertuago dagoena (lehen iritziari kontrajartzen zaiona) eta posizionamendu-ez hori argudio ahul batekin laguntzen (bakoitzak bere alde onak eta txarrak ditu). Azken paragrafoan berriz, beste argudio bat aurkezten du (honako hau ere testu hasieran plazaratu duen iritziaren aura doana), baina argudio hori alferrik galtzen da, testuaren ondorio gisa, berriz ere posizionamendu gabeko iritzia erakusten baitu. Testua osoan zehar, oro har

Beraz, testu honetan antolamendua okerra da, ez baitu helburu bat jarraitzen, eta beraz, argudio eta iritzi esaldiak nahas-nahasean daude. Gainera, planifikazioan hainbat atal falta dira, eta baliatutako atalen paragrafo banaketa ere ez da oso egokia. Hau bezalako iritzi gutun batean, zeina zuzendaritzara bidalia dagoen ordutegi aldaketarekiko norbere ustea erakusteko helburuarekin, egokiagoa dirudi Idiazabalek bere *Hizkuntza trebetasunen transferentzia programa elebidunetan* (2000) lanean aipatutako zatiak izatea: Sarrera (agurra, norberaren aurkezpena, gaiaren aurkezpena...) argudioak, konklusioa despedida.

Adibide honetan, Idiazabalen eredu jarraituz, gabezia batzuk hasierako eta amaierako agurrak ez dira agertzen, ez eta norberaren aurkezpenik ere. Era berean, arazoaren aurkezpena ere ez du egiten, hortik abiatuz ondoren bere proposamen bat ematen. Bere iritzia ematen duenaren saiakera ikusten baden ere hasieran, testua irakurri ahala, ikusi daiteke ez duela iritzi osatu bat ematen. Hasieran adibidez “nahiago nuke” erabiltzen du bere lehentasuna zein den adierazteko, alabaina, ondoren kontraesanean erortzen da. Bukaeran agertutako lortutako konklusioa ere nahiko lausoa da, argudio artean plazaratzen dena, eta posizionamendurik gabea. Beraz, atal horiek falta zaizkio batetik testu egoki bat izan dadin bere komunikazio egoerarako, eta hortaz gain, paragrafoen erabilera ere ez da bereziki zuzena. Gainera, ez du inongo proposamenik ematen arazoaren aurrean, ez du ez baten alde ez besteren alde egiten.

Beraz, hemendik ondorioztatu daitekeena, iritzi gutun batek beharko lukeen ezaugarriak ez dituela betetzen liteke. Egia da, argudioak erabiltzen dituela bere iritzia ematen saiatzeko baina aldi berean bere buruari kontra argudiatzen dio. Gainera, erabiltzen dituen argudio guztiak, ahulak ere badaude.

1.2. Testu honetan egileak erabiltzen dituen koxenio baliabideak aztertu eta dauden arazoak azaldu.

Testuan zehar ematen dituen argudioak antolatzeko erabiltzen dituen konexio baliabideak ez dira egoki erabilitakoak. Hauek erabiltzean hein batean erakusten digu konexio baliabideak ezagutzen dituela, baina beharbada irakaspen ez-egoki baten ondorioz ez dakiela testuinguruan hauek erabiltzen. Testu honetan erabiltzen den konexio baliabide nagusiak honakoak dira:

-Testu osoan zehar ageri den “-bait” kausazko antolatzailea, argudioetan erabilia.

-Aurreneko paragrafoan, lehen argudioaren kontraargudio ahula aurkezteko “nahiz eta” antolatzaile kontzesiboa (Ondoren beste argudio bat aurkeztuko duen arren, hau tartean sartzeak indartze baten borondatea izan zezakela erakus dezake). Geroago, *nekearen* argudioari estresarena eransteko “egia esan”. Horren ostean, “baina” antolatzaile

kontzesiboa erabiltzen du bigarren kontraargudioa (kanpokoan zailtasunena) aurkezteko, eta “*adibidez*” adibide antolatzailea hura laguntzeko. Beste konexio baliabide baten bila, “*behintzat*” emendiozko diskurtso markatzailea darabil (Honek Nolabaiteko muga jartzen du solasean, eta kasu honetan, berriz ere bere hasierako argudioak indartzeko erabiltzen du. Azkenik, “-z aparte” bidez, igorlearen idaz-momentuarekin lotutako bi argudio katetetzen ditu.

-Hurrengo bi paragrafoetan, bigarren paragrafoko hasieran erabiltzen den “*baina*” antolatzailea, zeinak aurreko paragrafoan emandako alde eta kontrako argudioen aurrean posizionamendu-eza sartzeko balio duen; eta azken paragrafoan ageri den “*eta honen ondorioz*”, emandako azken argudio horretatik datorren iritzia aurkezteko.

Ikus daiteke , batetik, planifikazioan falta diren atalei egoki lezotzkie antolatzaileak falta direla, esaterako, norbere burua eta gaia aurkeztekoak , eta bestetik, argudioak, testuan gehien agertuko diren elementuak diren heinean, aurkezteko antolatzaile gehiago ere komenigarriak liratekela (Idizabalek aipatutako *-lako*, *-z gero...* eta argudioak elkarrekin katetazeko *batetik*, *bestetik*, *horretaz gain*, *gainera...*). Hala ere, arazorik nabarmenena, erabiltzen ez dituen antolatzaileak baino, erabiltzen dituen antolatzaileak egoki ez erabiltzea da, argudi eta kontraargudioak eta iritzi eta iritzi eza bezalaxe, nahasturik darabiltzalako.

1.3. Testuaren kohesioan erabiltzen diren baliabideak ere ez dira beti oso aproposak. Azter itzazu.

Izen kohesioari dagokionez, determinate eta izenordain batzuk ageri dira testuan, bai gaiari erreferentzia egiteko, bai gaiarekiko bi ikuspuntuari erreferentzia egiteko, bai eta ahotsei (igorlea, iritzi baten aldekoak eta bestekoak, ikaskideak) erreferentzia egiteko ere. Hona hemen jarraian nagusienak:

AHOTSAK: **Nik** = Ikasle idazleak. (aurreko erreferentzia gabe). / **Askok** *bukatzen dute horrela* = ikasle askok / **gure** *kasuan* = *eskolako ikasleak* / **nere** *kasuan*= nire ikasgelako kasuan / **Jendeak**= ikasle batzuek / **Hau** [*pertsona*] **bakoitzaren arabera**ko/ San Pedroko **bat** dago = ikaskide bat....

GAIA: **Goiz eta arratsalde** = *ordutegi zatitua (oker erabilitako erreferentzia da)*. /*egun batzuk honela iragan*= orduak jarraian eginez / *Klase hauek* = klase jarraiak ala zatituak

POSIZIOAK: *Ez nago ez [posizio/iritzi] baten alde eta ez bestearena, [posizio/iritzi] bakoitzak... eta ez zait ajola [iritzi /posizio] batera egin edo bestetara egitea / ezin da esan zein [iritzi/posizio] den hobeagoa.* / **Hau** (iritzia) *bakoitzaren arabera*koa...

DENBORA: **Azken bi orduak**= *Eguneroko eskolako azken bi eskola orduak* / **Orain**= *Gutuna idazten ari naizen momentuan.*

Hortaz, ikusten den akats nagusia hasieratik halako elementuak erabiltzea da, hartzailearengan datu asko jakintzat emanez, eta garbi eta esplizituki adierazi gabe zerri egiten zaion erreferentzia halako elementu bat erabiltzen duen bakoitzean. Batetik, “*nik*” bezalakoak hasieratik erabiliz, norbera aurkeztea saihesten du, eta hartzailearentzat nahasgarria izan daiteke. Bestetik, “*bat*” edo “*beste*” posizioak erakutsiz, ikasleek dituzten

iritziak ez dira esplizituki agertzen, eta “ordutegi zattua edo jarraia” ordez, “*goiz eta arratsalde*” bezalakoak jarriz, ez dio gaiari muinetik heltzen.

Aditz kohesioari dagokionez berriz, orainaldia da aditz-denbora nagusi. Badira hainbat baldintza denborako adizki ere: *nahiago nuke*, (*honek ezinezkoa izango luke*), *nahiago izango nuke*. Hauen bitartez, igorleak bere iritzia apaltzen edo modalizatzen du Horietaz gain, ordea, ez da bestelako aditz denborarik (ahalera...) gehiagotan erabiltzen egileak bere iritziarekiko duen jarrera hori modalizatezko. Beraz, hau ere landu beharreko arloa da, aditz kohesioa zabal dezan ikasleak.

1.4. Aukera ezazu testu hau hobetzeko didaktika-proposamen bat. SD baterako diseinu bat proposatu eta modulu baterako hiru ariketa prestatu.

Aurretik kontuan izan behar dugu, ikasle honek ezagutzen dituela hizkuntzari dagozkion kontzeptu batzuk, ondoren hauek testu baten plazaratzen guztiz ondo ez badakien ere. Honen adibide dira aurretik jarritako konexio baliabideen adibide batzuk.

Hau irakaspen ez-egoki baten ondorio izan daiteke. Hau da, ikasleei kontzeptu batzuk nahitaez ematen zaizkiela inongo helburu gabe. Buruz ikastea egiten zaie, ikaskuntza sakonik gabe, benetako irakaspen bat eman gabe. Askotan helburu bezala jartzen da genero mota bat nahiz testu egituraketa zehatzak ikastea, baina benetako helburua komunikazioa dela dakigunez, bestelako ariketa batzuen bitartez irakatsi beharko diogu ikasleari hau behar den bezala garatzen. Horretarako SD baterako diseinu bat proposatu eta modulu baterako hiru ariketa prestatuko ditugu.

Testu hau hobetzeko planteatzen dugun sekuentzia didaktikoak 4 modulu ditu. Lehen moduluan, iritzi-gutun baten sarrera den hori (hots, agurra, norberaren aurkezpena eta gaiaren aurkezpen eta xedea) landuko litzateke, ikasleari ohartaraziz testua ez dela norberaren iritzi eta argudioetatik zuzenean hasten, eta beharrezkoa dela, (hartzaileak aurrez jakin dezakeen arren) zer helbururekin, zeren inguruan eta zeinen partetik idazten den esplizitatzea, testua ondo kokatzekotan. Bigarren moduluan, norberaren ahotsak testuan duen presentzia eta modalizazioa landuko dira. Norberaren iritzia edo argumentuak erakusteko, beti esperientzia propioak arrazoi indartsutzat hartzen ditu ikasleak adibide honetan, horiek adierazterakoan lehen pertsona horrekiko jarrera edo neurririk kontuan hartu gabe. Beraz, norberagandik datozen ideiak nola adierazi landuko da (Idiazabalen testutik, norberaren arrazoibideko baliabideak: *nire ustez*, *esan beharra dut*, *esan nahiko nuke* /zalantza edo probabilitatea adierazteko modalizatzaileak/ deontika eta axigologika modalizatzaileak...). Hirugarren moduluan, bai norberagandik sortutako bai bestelako argumentuak ere nola aurkeztu eta antolatu jorratuko da. Hau da, iritziarekin tartekatuz erakutsi beharrean, argumentuak ondo ordenaturik eta elkarrekin kateaturik adierazten irakatsi nahiko da modulu honetan. Horretarako, arreta gehienbat konexio elementuetan eta arrazoiketa-kateamendu elementuetan jarriko litzateke. Azken moduluan, laugarrenean, berriz ere bigarren moduluko lehen pertsonako arrazoibideak erakusteko modalizatzaileak gogoratuko dira, eta horien bidez azken ondorio-iritzi batekin lana nola burutu hausnartuko da. Hala, ikasleek konklusio egoki bat sortzen ikastea nahi da.

Jarraian, lehen modulurako balizko hiru ariketa aurkeztuko dira:

1. MODULUA: Iritzi gutunaren sarrera osatzen.

A) Agurtzen eta norbera aurkezten: Zer zerikusi duzu aurkeztuko denarekin?

- Gutunetan kontuan hartu behar da, batetik, zeini idazten ari zaren (beraz, hari agurra egiterakoan zein errespetu gradu erabili behar duzun eta zein eratan zuzenduko zatzaion gutun osoan zehar), eta bestetik, norbera ere nola aurkeztu behar den (nori idazten ari zaren kontuan hartuz, eta zeinen izenean idazten duzun kontuan hartuz). Jarraian, hiru agur eta hiru aurkezpen agertuko dira. Lotu agur bakoitza dagokion aurkezpenarekin, ikusi zertan ikusten den lotura eta hautatu gure gutunerako egokia izan daitekeena.

Kaixo entrenatzaile,	XXXXX naiz, eskola honetako DBHko ikasle bat, eta eskolan bertan hartu nahi den neurri baten harira nire eta ikasle taldearen izenean idazten dut.
Zuzendari agurgarri hori,	Ez dakit nitaz gogoratuko zaren, baina txikitari batera ibili ginen eskolan. Ondo al doa dena?
Iepa XXX, aspaldiko!	XXXXX naiz, aurreko astean entrenamenduetara joateko zailtasunak izan zituenak.

B) Eztabaidagaia aurkezten: Zerk sortzen du zeresana edo eztabaida? Zer gaik zaramatza idaztera?

- Zure gutuna jasoko duenak ez du zertan jakin, norbera aurkeztu arren, zer gairen inguruan idaztera zoazen edota zerk gaik eramaten zaituen gutuna idaztera. Saiatu aurrez ikusitako egoera bakoitzeko (artean, gure testuari dagokiona dago) egileak zein gairen inguruan mintzatu nahi duen adierazten. Jarraian daude gaiak. Saiatu igorlearen ikuspuntuan sartu gabe, gaia soilik adierazten. Bat egin aldiro, alderatu ondoko ikaskideekin eta erakutsi irakasleari, eta orduan, hurrengora pasa.

I) Eskolako lagunen afaria:

.....

.....

II) Entrenamendura joan ez gero, partiduak ezin jokatzeko araua:

.....

.....

III) Orduetegi aldaketaren erabakia:

.....

.....

C) Norberaren ikuspuntu eta xedea zehazten: Zer adierazi edo lortu nahi da idatziarekin?

-Aurkeztutako gai horren gainean, ikuspuntu bat adierazi nahiko duzu zure gutunarekin, eta agian, baita zerbait eskatu ere. Iritzi hori testuaren amaieran joan daiteke, aldeko edo kontrako arrazoiak erakutsi eta gero, edota testuaren hasieran bertan aditzera eman daiteke, gerora defendatuko den ikuspuntua zein den ikusteko. Edonola ere, iritzi horren gainean bi gauza kontuan hartzekoak dira. Batetik, gai horrek zuregan eragina izan dezake (uniformearen kasuan ikaslearengan eragin zuzena du), eta beraz, iritzihorrek posizionatua egon behar du, alde edo aurka egon behar du, iritzi gutuna posizionamendu gori erakusteko aukera bikaina denez gero. Bestetik, ez de ahaztu behar ordea, gutun bat denez eta hartzailea ere kontuan hartuz, iritzi horren adierazpidean tentuz jokatu behar dela, ziurtasun erabatekoarekin jokatu gabe. Jarraian, bi iritzi ageri dira ordutegiaren gainean, oso egokiak ez diruditenak arrazoi ezberdinengatik. Saiatu oker dauden puntuak identifikatzen (eta ahal bada, zuzentzen).

Iritzi asko entzun ditut, eta egia esan, ikasle batzuei aldaketa ondo letorkielako eta beste batzuk ados daudenez oraingo ordutegiarekin, niri berdin zait ordutegi jarraira aldatu edota oraingo ordutegi zatituarekin jarraitu.

Urteak daramatzagu ikasleok horrelako ordutegi baten zain, eta lasaitu ederra hartuko dugu ordutegi jarraiaren alde egiten bada, nabarmen hobea baita ordutegu berria. Mesedez esaten dizugu ahalik azkarren egiteko aldaketa. Bada garaia behingoz aldatzeko.

2. TESTUA: Ikastetxe batean ikasleei ordutegi aldaketa proposatu zaie. Ikus ikasle batek zuzendaritzari helarazi dion iritzi gutuna . Azter ezazu testuen arkitekturaren hiru mailatako bakoitzaren arabera:

Proposamena (Arropen janzkera)

Kaixo zuzendari jauna:

Arropa horiek eramatea ez zait oso ongi iruditzen piskat ortero geldituko bait zen. Gainera jende denak erropa berdina eramanez gero, norbaitekin konfunditu ahal izango gara.

Egia da baita ere, ez baduzu “MARKAKO” erropak eramaten ez badizutuz jendeak burla egiten dizutela eta jendeak markako gauzak erosten diru ugaritxo gastatzen duela. Beharbada jendeak ez burlatzeko erosiko duela markako gauza baina nire ustez gehienak “txuleatzeko erosten dute. Orduan niri berdin zait uniformearen eraman ala ez eraman, orduan ni ez nago INOREN ALDE!!!

2.1. Testu generoa kontuan hartuz azter ezazu nola bideratzen duen egileak testuaren egitura-planifikazioa? Zein elementuz baliatzen da? Arazorik?

Beste testuarekin alderatuz, aipatu beharra dago gutun bati dagokion formatik gertuago dagoela honako adibide hau. Hala ere, agerikoa da ez dituela gutun formal baten ezaugarri guztiak betetzen. Egitura orokor bat ematekotan, hasierako atalean agurra ageri zaigu (zuzendariari zuzendua). Jarraian, lehenengo paragrafoan iritzi batekin datorkigu eta iritzi hau defendatuko duten hainbat argudio aurkeztu ditu. Bigarren paragrafoan, aldiz, bere iritziari kontrajartzen zaizkion hainbat kontrargudio ageri dira. Azkenik, ez-konklusio bat ageri zaigu.

Batetik, zuzendariari zuzendua dagoela baieztatzen duen agurra “*kaixo zuzendari jauna:*” baten agerpena daukagu. Baina, gutun formal batez hitz egiten ari garen heinean, agerikoa da bere agurra ez dela egokia. Bestetik, segidan gorputza deritzoguna daukagu, zeinetan, bere iritzia ageri zaigun: lehenik eta behin “*ni*” izen pertsonalaren agerpena, nolabaiteko aurkezpena izango litzatekeena. Jarraian, iritzi batekin datorkigu eta iritzi hori indartuko duen kausa edo zergati (argudio) batek lagunduko dio, baina, iritzi hau ez da oso pisuzkoa izango “*iruditzen (iritzia) piskat ortero geldituko bait zen*” Paragrafo osoan zehar berak proposaturiko “*kexa*” indartuko duten beste zenbait baliabide erabiliko ditu, hala nola, “*Gainera jende denak erropa berdina eramanez gero, norbaitekin konfunditu ahal izango gara.*” Hurrengo paragrafoan bere iritziari kontra egingo dio kontraargudio bat (modalizatzailaz adierazia) ageri zaigu: “*Egia da baita ere*”, bere iritzia leunduko duena.. Azkeneneko paragrafoan, konklusioa ageri beharko litzateke baina egilea ez da iritzi batean postulatzen.

Agertzen diren atalen aurrean, asko dira falta zaizkion atalak. Esaterako, norberaren aurkezpena edota gaiaren aurkezpen edo helburua zehatzik adierazten “zertarako idatzi dio zuzendariari?” azkenik, konklusioa eta despedida falta zaizkio: konklusioan bere iritzia azpimarratzeko erabili beharko zuen arren, ikaslea ez da alde batean ez bestean posizionatzen.

2.2. Testu honetan egileak erabiltzen dituen konexio baliabideak aztertu eta dauden arazoak azaldu.

Bigarren testu honetan ere hainbat konexio baliabide erabiltzen dituen arren, konexio hauen erabilera ez da oso egokia izan. Baina, aintzat hartzekoa da konexio baliabideen ezagutza zertxobait menperatzen duela. Hortaz, nabarmentzen diren konexio baliabideak honako hauek dira:

Lehenengo paragrafoan, berak duen iritzia defendatu naihean “bait zen” kausazko antolatzailearen agerpena nabarmentzen da, hala ere, honen erabilera maiztasun txikikoa da. Paragrafo berean, “gainera” emendiozko lokailuaren erabilpenarekin datorkigu, proposaturiko iritzia indartzeko asmotan. Paragrafo honetan “-ez gero” ondoriozko menderagailua ere agertzen da, honekin ondorio bat azaleratu nahi du. Kasu honetan, denek erropa berdina erabiltzearen ondorioz ez dutela jakingo nor den nor bereizten, adierazi nahi digu.

Bigarren paragrafoan, “baita ere” gehikari partikula daukagu, lokailu honen bitartez hasierako iritziaren aurkako argudio segida bat aurkeztu du. Jarraian, “ez baduzu” egongo litzake. “baduzu” bera, baldintzazko aditza da, “ez” aldiz ezezko lokailua. Honela, balio negatiboa erakusten duen baldintza batez ariko ginateke. Esaldi berean, “ez badizutuz” forma ere erabiltzen du. Adibide hauek eta aurreragokoak ere ikusita, ondorioztatu dezakegu baldintzazko aditzen erabilpena masiboa egiten duela.

Hurrengoko esaldian, “baina” aurkakotasuna erakusten duen lokailua erabiltzen du. Honi erabilera ematen dio, bere beste argudio bat emateko, bere iritzia indartzeko, finean.

Iritzi gutuna izan behar lukeen testu honi amaiera ematen dio “orduan niri berdin zait” formarekin, azken esaldiaren hasieran. Honek ez-posizionazio bat ematen dio arazoaren aurreran. Bere iritzia argudio eta kontraargudioen bitartez saiatzen bada ere, azkenean honekin erakusten digu benetan arazoarekiko posizio eza duela.

2.3. Testuaren kohesioan erabiltzen diren baliabideak ere ez dira beti oso aproposak. Azter itzazu.

Izen kohesioa eta aditz kohesioaren gaineko hainbat baliabide ageri dira testu osoan zehar. Alabaina, hauen erabilera ez da guztiz egokia. Beraz, baliabide guzti hauek hainbat ataletan bereziko ditugu. Hasteko, izen kohesioari dagozkionak:

AHOTSAK: “Ez **zait** oso ongi iruditzen” bezalako adizkiaren bitartez “**Niri**” izenordain pertsonalaren aldarrikapena egin nahi du. Jende denak= ikastetxeko ikasleei erreferentzia egin nahi die, “jende” hitzaren erabilera oso masiboa azpimarragarria da. Segidan “norbaitekin konfunditu ahal izango gara” “**norbait**” horrek uniformea darabilten ikasleei egiten dio erreferentzia. “Ez baduzu”= zu izenordain pertsonala nabarmentzen den arren, kasu honetan, “zu ikasle zarenez gero, ez baduzu” ikasleari nolabaiteko erreferentzia egin nahi dio.

GAIA: Eztabaida gaia ez du oso argi adierazten. **Arropa horiek**= ikastetxeko uniformeari zuzentzeko. **Markako gauza**= markako edo arropa garestiak

POSIZIOAK: “Orduan niri berdín zait uniformeá eraman ala ez eraman, orduan ni ez nago INOREN ALDE!!!”/ “arropa horiek eramatea ez zait oso ongi iruditzen”.

Testuan ageri diren ahotsen artean nabarmena da “ni” izenordain pertsonalaren erabilera. Baina, gauza zehatzak izendatzerako orduan arazoak dituela argi ikus daiteke. Adibidez: ikastetxeko ikasleei erreferentzia egiterako orduan “norbait” izenordain zehaztugabea darabil. Bestetik, ez du eztabaida gaia inondik inora ere aurkezten. Horretarako, “markako gauzak, arropa horiek...” bezalakoxe hitzak erabiltzen ditu. Azkenik, posizionaketa daukagu, arguzdiazko testu baten aurrean egonik, egileak iritzi bat aurkeztea ezinbestekoa dela azpimarratu beharra dago. Kasu honetan, aldiz, egilea ez da alde batean ez zein bestean posizionatzen.

Aditz kohesioan berriro ere, orainaldia da aditz-denbora nagusia. Baina, lehen esan bezala, baldintzazko adizkien erabilera handia dela ikus dezakegu, beharrezkoa ez bada ere: “bait zen” (*baizen* beharko luke), “ahal izango gara” (*gaitzezke*), “ez baduzu” (egoki erabilia egongo litzateke),

Aditz-kohesioaren eta testuko beste baliabide/forma batzuen bidez (aurrerago aipatutakoak), bere iritzia plazaratzen saiatzen da igorlea. Adizki aspektu hauez gain, ez ditu bestelako aditz moduak (ahalera, subjuntiboa...) erabiltzen bere iritzia hein batean modalizatzeko. Hala bada, hau ere landu beharreko arloa da, ikasleak aditz kohesioaren jakintza maila hobetu dezan.

2.4 Aukera ezazu testu hau hobetzeko didaktika-proposamen bat. SD baterako diseinu bat proposatu eta modulu baterako hiru ariketa prestatu.

Testu hau lantzeko proposatzen dudán sekuentzia didaktikoak 3 modulu ditu. Lehen moduluan, aurreko sekuentzian bezala, iritzi-gutunaren sarrera landuko da, agurra egiteaz, gain, igorlea eta gaia testura ekartzen ikasteko. Bigarren moduluan, argudioak elkarrekin erlazioa izatea landuko da (antolatzaileak erabili arren, nahiko desordenean daude), eta bereziki, argudioen ordenari eta kontra-argudioei erreparatuko zaie (hau da, besteen iritziak ere nola ekarri eta norberearekin nola uztartu). Izan ere, testu honetan bere argudioen kontrako argudio bat txertatzen badu ere (“*beharbada jendeak ez burlatzeko... baina nire ustez...*” (6-7)) ez dago oso egoki erantsia. Gainera, argudio horiek azken konklusioarekin batean joan daitezela ere jorratuko da. Hain zuzen ere, azken moduluan, konklusioari dagokion zatia landuko da, eta bertan bereziki, modalizazioari erreparatuko zaio. Egia da testuan zehar ere lehen pertsonaren presentziak eta bere iritziaren defentsak indarra dutela, baina azken honetan nabarmena egiten da bere iritziaren espresiarekiko neurri eza (“ez nago INOREN ALDE!!!”).

Jarraian, 2. modulua balizko hiru ariketa emango dira:

2. MODULUA: Argudioak eta kontraargudioak norbere iritziaren mesedetan aurkezten.

A) Argudioak elkarrekin lotzeko baliabideak.

-Hona hemen jarraian bi zerrenda. Lehenengoan uniformeek aldeko argudioak, eta bigarrean, aurkako argudioak agertzen dira. Saiatu zerrendako antolatzaile eta argudioak tartetkatzen (aurka edo alde) paragrafo bat osatzen.

- ARGUDIOAK (alde)
 - Pertsonen ahalmen ekonomikoak arropetan duen eragina ezabatu
 - Klasean bakoitzaren gustu eta estiloengatik sor daitezkeen ika-mika eta bazterketak saihestu.
 - Eskola bereko komunitateko kide sentitu.
- ARGUDIOAK (aurka)
 - Norbere estiloa erakusteko, askatasunari muga jarri.
 - Sexismoa bultzatzen duen, genero arabera uniformeek ezberdintasuna nabaria bada.
 - Eskolaren agintea eta haurren independentzia eza nabarmendu.

B) Argudioetan igorleak (eta bere esperientziak) duten pisua neurtzen eta mugatzen.

-Hemen azterketen gaineko iritzi testu bateko argudioei dagokion zati bat ageri da. Argudio guztiak lehen pertsonan edo egilearen esperientzian oinarritutakoak dira. Saiatu paragrafo baliokide bat osatzen, igorlaren marka batzuk ezabatuz. Horretarako, besteak beste, baliagarri izango zaizkizu tresna hauek: hirugarren pertsona sartzea, baldintzak eta ahalera forman jartzea aditzak, norbere kasua kasu orokor egitea, norberak garbi ikusten duena aukera soiltzat ematea...

“Azterketa garaian sekulako lanak izaten ditut denak aurerra eramateko. Denak batera ipintzen dira eta horretaz ni berandu konturatzen naiz eta azken egunetan dena iritsi ezinik nabil. Klaseko asko gara azterketa eredu honen kontra gaudenak. Gainera, garbi ikusten dut astero astero kontroltxo bat jarriko balitz askoz ere hobeto ulertuko nituzkela gauzak, zeren azken garaian azterketak jarrita gauzak buruz ikasten ditut baina ez ditut ulertzen”.

C) Zure iritziaren kontrako argudio posibleak norbere arrazoibidera erantzen.

-Besteen iritziak kontuan hartzeak zure iritzia bera ere indartu dezake, besteen ikuspuntuaz kontziente zarela erakustez gain, zure iritziaren aurkako argudio hori zerorren beste argudio batekin lotuz gero, zure iritziak pisua lortzen baitu. Jarraian Saiatu kontra argudio bakoitza (aldeko edo aurkako izan zure iritzia, kontraargudioak beste iritzikoak izango dira) zure argudio batekin lotzen.

Horretarako, bestearen hitzak norbere testura ekartzeko baliabideak erabili itzazu: *aipatu digute, diotenez, entzuna dut, aditu izan dut, batzuen ustetan, badira hala*

pentsatzen dutenak... eta ondoren, saiatu zure argudioa antolatzaile batekin (baina, alabaina, hala ere, ordea, arren, ez dut uste...) lotzen.

- ARGUDIOAK (kontra)

- Bidejokoei denbora gehiegi eskainiz gero, haurrek ez dute beraiantzako denborarik hartzen eta irudimen gaitasuna murrizten zaie.
- Bideojokoetan ibiltzeak ikasteko denbora kendu dezake.
- Bideojokoei denbora eskaintzen dieten haurrekin arazoak dituzte gurasoak, beraien kontroletik kanpo geratzen baita askotan bideojokoaren erabilera.

- ARGUDIOAK (alde)

- Bideojoko batzuei denbora eskaintzeak hainbat gaitasun hobea ditzake, hala nola, espazio gaitasuna, planifikazio gaitasuna...
- Bideojoko asko ikasketei zuzenduak, ikaste prozesuan lagun dezakete.
- Bideojokoak sari gisa erabiliz, gaztetxoak eginkizunen ardura hartzeko tresna gisa erabili daitezke.